



GOI-MAILAKO ARKITEKTOAREN HIRIGINTZA-AHOLKULARITZAKO ZERBITZUAREN ESLEITZEA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko irailaren 15eko bilkuran, behin betikoz esleitu zuen **goi-mailako arkitektoaren hirigintza-aholkularitzako zerbitzuaren** kontratua, eta hori guztia argitara ematen da, hala ezartzen baita azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 154. artikuluan; xedapen horren bidez, onartu egiten da Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.

1.- Erakunde esleitzailea: Gorlizko Udala.

2.- Kontratuaren xedea: "Goi-mailako arkitektoaren hirigintza-aholkularitzako zerbitzua"

3.- Izapide-mota: Ohikoa.

4.-Prozedura: Irekia.

5.-Modua: Hainbat esleipen-irizpide erabiliz.

6.-Lehiaketaren oinarrizko aurrekontua:

- a) Zenbateko garbia: 144.000,00€.
- b) BEZ %21: 30.240,00€.
- c) Zenbateko osoa: 174.240,00€.

7.-Esleipena:

- a) Data: 2016ko irailaren 15a
- b) Esleipen-hartzailea: **TANDEM ARKITEKTURA HIRIGINTZA BULEGOA S.L.P.**
- c) Nazionalitatea: espainiarra.
- d) Esleipenaren zenbatekoa: **129.600,00€**, gehi **27.216,00€** BEZari dagokiona.

8.-Kontratua formalizatzeko data: 2016ko urriaren 3an

Gorliz, 2016ko irailaren 29a
LA ALCALDESA



ARANTZA ETXEBERRIA VILLABEITIA